



upv/ehu

UPV/EHUko lanaldi partzialdun irakasleen egoera

2021eko udazkenean eginiko galdeketaren emaitza

UPV/EHUko LAB Sail Sindikala
www.labehu.eus

Donostian: Barriola eraikina
Tel. 943 018 435 | 943 018 469
e-maila: lab.donostia@ehu.eus

Gasteizen: Elurreta eraikina
Tel. 945 014 374
e-maila: lab.gasteiz@ehu.eus

Leioan: Liburutegi eraikina
Tel. 946 012 436 | 946 015 288
e-maila: lab.leioa@ehu.eus

0- Sarrera


Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) 1.334 ikertzaile eta 4.285 irakasle-ikertzaile daude 2021ean (2021/09/17ko datuak). Bigarren horietatik 955ek kontratu partzialak dituzte (% 22,3ak), eta hilean 395-788 €-ko soldata gordina daukate 14 ordainketetan. Soldata horien truke, lanaldi partziala ezberdinak eskatzen zaie, astean 6 eta 12 ordu bitartekoak. Baina LABetik arazo larri bat detektatzen hasi ginen duela urte batzuk, lanaldi partzialdun irakasle hauek beren eginbeharrak betetzeko kontratuan ezarritako orduez gain ordainduta ez dauden beste aktibitateetan gainorduak sartzen ari baitira era sistematikoan: kudeaketa, klaseen prestakuntza eta formakuntza (ikerketa aipatu gabe, irakasleen gehiengoak egiten duena).

Egoera honi buruz benetako diagnosi bat egiteko telefono bidezko inkestak burutzen hasi ginen eta 42 pertsonari galdeketa egin ostean egoeraren larritasuna konfirmatu genuen. Lanaldi partzialetan kontraturikoaren lanordu bikoitza baino gehiago burutzen ari zirela jaso genuen emaitza bezala. Gainera, lan egoera tamalgarriak atzeman ziren: errenta basikoa kobratzen ari diren irakasle partzialak, gurasoen laguntzaz lanera joateko autobus garraioa ordaintzen dutenak, bere bikotearen laguntza ekonomikoaz bizi direnak, aurrez eginiko lanaren langabeziak EHUKo soldata 1.000€ arte osatzeko beharra dutenak, beren ibilbide akademikoarekin zerikusirik ez duten lanetan lanean ari diren irakasleak... egoerak ez dira gozoak.

Ondorioz, diagnosi zehatzago bat egiteko galdeketa bat prestatu zen eta lanaldi partzialdun orori luzatu zitzaion. Horietatik 102 erantzun jaso ditugu, eta horiekin burutu da diagnosi hau, non ikusi den batez bestean kontraturikoaren % 309 lanordu sartzen dituztela, hiru aldiz gehiago alegia. Azpimarratu behar da, LABek kontratatutako kontratuen arabera, kontratatutako irakasleen % 57,1 emakumeak direla, eta, beste behin ere, emakumeak direla kaltetuenak gure ingurune akademiko hurbilenean ere.

1- Lanaldi partzialeko kontratudunen ezaugarritzea

Galdeketa bete duten partzialen artean ia erdia (% 47a) 18 kreditutarako kontratatua dago, jardunaldi osoan dagoen irakasle baten (24 kreditu) % 75eko irakaskuntza zama izanik. Ordea, soldata eta gizarte segurantzaren aitorturiko lanorduak % 33,4 dira. Jarraian, inkesta erantzun dutenen % 28ak 12 kredituko kontratua du, eta % 24ak 9 kredituko kontratua.




1.Irudia: Galdeketa erantzun duten 102 kontratu partzialdun irakasleen profila.

2- Lanaldi partzialeko plazaren izaera

Galdeketa erantzun duten pertsonen kontratuaren izaerari dagokionez, erantzun dutenen erdia (% 49,5a) irakasle elkartu gisara kontratatua dago. Irakasle elkartuaren irudiaren erabilera guztiz definitua dago: EHUtik kanpoko profesionalak dira, lan munduan duten esperientzia unibertsitatera ekartzeko kontratatzen direnak. Elkartuek beren jardun profesionala eta esperientzia egiaztatzen duen lan kontratu bat izan behar dute (era zurrun baten aztertu behar litzatekeena). Baina tamalez, errealitatean maiz ez da hau betetzen, elkartu plazak ordezkapen poltsetatik askotan betetzen baitira. Alegia, irakasle elkartu irudiaren erabilera okerrak ekiditea ezinbestekoa da. Galdeketa erantzun dutenen artean % 9ak dio lan-poltsetatik hartuak direla elkartu izaerako jatorrizko plazak betetzeko, beraien kontratua bitarteko kontratatua izanik. Elkartu bat lan-poltsetatik hartzea, elkartu irudiaren zentzuaren kontra doa, hain justu, eskaini beharko lukeen lan esperientziarik ez duelako.


Galdeketa bete dutenen artean, beste multzo handi bat ordezkapenak burutzen ari diren irakasleak dira, % 37a inguru.



2.Irudia: Inkesta erantzun duten irakasle-ikertzaile partzialen kontratu motak.

3- Lanaldi partzialeko langileek EHUan daramaten urte kopurua


Batez bestean, inkesta erantzun duten irakasleek 4,6 urteko antzintasuna dute (kalkulua kontratu bakoitzean dagoen irakasle kopuruarekin ponderatuta egin da). Horrek adierazten du partzialtasuna ez dela hilabete batzuetan irakasleak ordezkatzeko kontratu puntual bat, bazik eta kontratuek epe ertainerako luzera dutela.




3.Irudia: Inkesta erantzun dutenek, kontratu motaren arabera, lanean daramaten urte kopurua. Batez bestekoa ateratzeko kontratu mota bakoitzean dagoen pertsona kopurua kontutan izan da. (Grafikan ez da gehitu 5 orduko kontratua zeukan irakasle bakarra; baina gainontzeko kalkuluetarako bere erantzunak hartu dira kontuan).

4- Lanaldi partzialeko irakasleen lanordu errealak


Batez beste % 309-ko lan-zama dute inkesta erantzun duten lanaldi partzialean jarduten duten irakasleek (4. irudia). Inkestaren arabera, egoerarik larrienak 9 kredituko kontratuak dituzten irakasleek pairatzen dituzte, astean 6 orduko kontratua izanik (3 ordu klaseak eta 3 ordu tutoretzak) eta batez bestean 23 ordu sartzen dituztelarik beren atazak aurrera atera ahal izateko (5. irudia). Eta arazo hau ez da soldatetan soilik islatzen, baizik eta langileon bizitza laboralean ere. Izan ere, EHUK langile hauengatik burutzen duen Gizarte Segurantzako ordainketa guztiz bidegabea da. 7. irudian ikus daiteke EHUK aitortzen eta ordaintzen dituen lanortuak, eta horren orde, astean 37,5 lanorduetatik lan egiten duten ehunekoa. Honek, beraz, arazo bikoitza sortzen die langileei, alde batetik soldata prekarioa, eta, bestetik, gizarte segurantzaz aitortzen zaien ordu kopurua (6. irudia) eta erretiroa lortzeko kotizatzen duten lanorduen murrizte bidegabea. 7. irudian ikus daiteke aitortzen zaizkien lanorduen ehunekoa eta benetan sartzen duten jardunaldiak suposatzen duen ehunekoa. Egiten diren benetako ehunekoak Gizarte Segurantzaz jasoak egon beharko liriateke.



4.Irudia: Kontratu motaren arabera inkesta bete duten irakasleek egiten duten lanaldia, kontratuan jasota dagoenarekin alderatuz.




5.Irudia: Kontratu motaren arabera ordaintzen diren orduak (berdez) eta kontratu motaren arabera benetan sartzen diren orduak, inkestaren arabera (gorriz).



6.Irudia: Gizarte Segurantzaren eta 41/2008 dekretuan aitortzen zaien jardunaldiaren ehunekoa (berdez) eta langileek burutzen duten jardunaldiaren benetako ehunekoa.

5- Lanaldi partzialdun irakasleek ataza bakoitzari eskainiriko denbora

Gaur egun, kontratu partzialeko irakasleei aitortzen eta ordaintzen zaizkien lanordu bakarrak tutoretzak eta klase orduak dira. Ordu horietan sartzen da azterketa garaian, azterketak edo gradu amaierako lanak prestatu eta zuzentzea, beti ere asteroko jardunaldia gainditu gabe. Ordea, 7. Irudian garbi ikusten da material didaktikoa prestatzen, formakuntzan eta kudeaketan astean 12 eta 14 ordu bitarte lan egiten dutela, kontratu motaren arabera. Gainera, inkestaren arabera, astean 4 eta 6 ordu bitartean eskaintzen diote aitortu gabe egiten duten ikerketari.




7.Irudia: Kontratu motaren arabera irakasle partzialek astean lan egiten duten ordu kopurua, inkestaren arabera.

6- Lanaldi partzialeko irakasleen ikerketa

Lanaldi partzialeko irakasleen ikertzeko aitortza guztiz ukatua dago gaur egun. Gainera oztopoak jartzen zaizkie ikerketa proiektuetan parte hartzeko, edo diru laguntzen eskaerak egiteko. Ordea, irakasle hauetako asko EHUKo irakasle finko bilakatzeko ikerketa egiten ari diren irakasleak dira. EHUK estu hartu ditu irakasle hauek: ikertu behar dute unibertsitatean lanpostu finkoa lortu nahi badute, baina musutruk, eta ikertzen ez badute ez dute *curriculum* nahikorik garatuko geratzeko. Gainera, lanaldi partzialeko irakasleek eginiko ikerketetatik ateratako nazioarteko artikuluko zientifikoak EHUn izenean argitaratzen dira, nazioarteko rankingetan EHU hobeto posizionatuz. Horrez gain, lanaldi partzialesan dauden irakasleek egindako ikerketa artikulua beren lankideek aurkez ditzakete ikerketa meritua lortzeko, baina irakasle partzialek ez dute eskubide hau.


LAB-en inkestaren arabera EHUn lanaldi partzialeko irakasleen % 75,2ak ikertu egiten du, eta horietatik % 75ak unibertsitatean lanpostu bat lortzeko ikertzea beharrezkoa dela dio.



8.Irudia: Irakasle partzialen artean ikertzen dutenen arrazoi nagusiak.

7- Lanaldi partzialeko irakasleen diru iturriak


Lanaldi partzialeko irakasleek batzuetan EHUtik kanpo beste kontratuak dituzte, baina ez beti. % 61ak badu beste diru iturri nagusiago bat, baina % 31ak ez du beste diru iturririk. Bestalde, % 8ak, lanaldi partzialeko soldatez gain, diru iturriak osagarriak ditu, baina EHUKo soldata baina murriztagoak izanik, soldata oso bat osatzeko arazoak dauzkate.



9.Irudia: Irakasle partzialen artean ikertzen dutenen arrazoi nagusiak.

8- EHUUn irakasle gisara karrera egiteko aukerak.


Etorkizunari dagokionez % 63ak EHUUn geratu nahi izango luke arduraldi osoko irakasle gisara, % 31ak elkartu gisara lan egin nahi izango luke, eta % 6k soilik aldi baterako egon nahi du EHUUn.



10.Irudia: Lanaldi partzialdun irakasleek etorkizunera begira duten lan helburua.

9- Zer egin lanaldi partzialeko irakasleen egoera hobetzeko

Inkestan, irakasleen egoera hobetzeko 6 proposamen eskaini zitzaizkien, horien artean 3 aukeratzeko. Gehien aukeratutako erantzuna soldata igotzea izan da. Ondoren ikerketa aitortzea eta horretarako laguntzak eskaintzea aldarrikatzen da. Hirugarrenik, irakaskuntza eta ikerkuntza merituen aitortza (bosturteko eta seiurtekoak), eta laugarrenik irakasle elkartuen figuraren erabilera zuzena egitea.



11.Irudia: Lanaldi partzialdun irakasleek egoera hobetzeko egindako bozkan irakasleek eginiko hautaketa.

Beste proposamen batzuk ere aipatu dira erantzun dutenen artean, horietatik bi 11. Irudian ageri direnekiko berriak izanik:

- Irakasleek burutu behar dituzten gehiegizko burokrazia eta justifikazioak (Unibasq, ANECA, osagarriak, Docentiaz, merituen eguneraketak...) murriztea eta prozesu ezberdinak automatizatzea.
- Lan-poltsetatik deitu ondoren klaseak ematen zuzenean hasi beharrian, ikasgaia prestatzeko astia izatea.

10- Bestelakoak

Irakasleen egoeraren prekaritatearen bestelako azalpenetan puntu ugari atera dira, baina gehien errepikatzen dena soldataren duintasun gabezia da. Horretaz gain, ikerketan aurrera jarraitzeko topatzen dituzten trabez kexu ere badira: “lotsagarria da aldi baterako irakasleok seiurtekoetara aurkezteko, ikerketa proiektuak zuzentzeko, edo ondoren eskatzen dizkiguten ikerkuntza betebeharrak lortzeko (Unibasq zein ANECAk) ditugun trabak”. Gainera, egoera guztiz prekarioen deskribapenak ere azaldu dituzte, EHUKo irakasle diren bitartean Oinarrizko Errenta kobratzen ari den pertsona bat baino gehiago dagoela konfirmatuz. Bestalde, era orokortuan salatzen da departamentuen aldetik duten laguntzaren gabezia (material didaktikoak lortzeko, irakasgai berriak prestatzeko edo etorkizun profesionalerako irizpideak jasotzeko). Irakasle batzuek greba luze baten beharra aipatzen dute, egoera honi amaiera emateko.